




**TAILERRA: KONFERENTZIAK ETA ZIRKULUAK EUSKADIKO JUSTIZIA
LEHENERATZAILEKO ZERBITZUETAN. SIMULAZIO ARIKETA ETA HORIEK BULTZATZEKO
MODUARI BURUZKO BATERAKO EZTABAIDA**

-EGUNA: 2017KO URRIAREN 20A, OSTIRALA

-LEKUA: 4. IKASGELA, UPV/EHUko GIPUZKOAKO CAMPUSAREN CARLOS SANTAMARIA ZENTROA, DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

-PARTE HARTZAILEAK: BITARTEKARITZA BARNE JUDIZIALEKO (HELDUAK) ZERBITZUKO ETA BITARTEKARITZAZ ARDURATZEN DEN ADINGABEEN TEKNIKARIEN TALDEETAKO LANGILEAK

GONBIDATUKO DIRA ERE JUSTIZIA ZUZENDARITZAKO ARDURADUN/TEKNIKARI BAT ETA BESTE PERTSONA INTERESATU BATZUK, 25EKO MUGARA IRITSI ARTE, TAILERRAREN DINAMIKA ZIURTATZEKO.

1. TAILERRAREN HELBURUA:

Gaian espezializatutako bibliografia argia da: konferentziak eta zirkuluak ahalmen handiko bitartekoak dira justizia leheneratzailearen barruan; izan ere, horien abiapuntuan dira, batetik, konplexuak eta gatazkatsuak diren giza harremanen ageriko errealitatea, eta, bestetik, autonomia erlazionala bultzatzeko beharra, gizarte

zuzenago batzuk helmugan izanda, autonomia hori izan ezean ezin baitute behar bezala funtzionatu prebentzio, esku hartze eta/edo erreparazio proiektuek.

Hori horrela bada, zergatik daude konferentziak eta zirkuluak behar baino gutxiago erabiliak edo gutxi garatuak gure zigor arloaren testuinguruan?

Abiapuntutzat hartzen dugu parte hartzaileen zerbitzuetan dagoeneko egin direla zenbait konferentzia eta zirkulu leheneratzaile, salbuespenak izan badira ere. Era berean, 2015eko ekainean, Lorenn Walker prestatzaile eta bideratzaile estatubatuarrak gai horri buruzko tailer bat eman zien zerbitzu hauetan lanean diharduten pertsonei. Beste tailer bat egin zen ere 2017ko maiatzaren 18an, Tim Chapmanekin, gazte justiziaren esparruan. Gainera, bertaratutako bideratzaileek konferentziak eta zirkuluak egiteko gutxieneko oinarriak eta gaitasunak dituzte jada, zigor sisteman justizia leheneratzailearen esparruan komunikazioa erraztean oinarritzen direnak. Edonola ere, pertsona kopuruaren handitzeak eta “komunitate” kontzeptu lausoak nolabaiteko espezialitatea eskatzen dute, talde komunikazioaren arriskuak (eta aukerak) kudeatzeko. Hori dela eta, tailer honek ez du izan nahi konferentziei eta zirkuluei buruzko prestakuntza orokorreko beste tailer bat, eta, bertaratutakoez harago, inplikaturako pertsonen motibazioen eta baliabideen katalizatzaile on bat izan nahi du. Horrela, proposaturako eztabaidak eta simulazio ariketak beharrezkoak diren zenbait indar mugiaraz ditzakete, prozesuaren alderdiak zehaztuta, mugak identifikatuta eta horietaz jabetuta, baliabide espezifikoak erabilita eta pentsatuta... egoera batean kokatuta, alderdi orokorrako eztabaidatzeari begira. Imajina dezagun tailerrera gatzela eta hurrengo egunean, berriz gure lanean, konferentziak eta zirkuluak aplikatu nahi ditugula modu kontziente eta jasangarri batean. Tailer hau horretarako akuilua izatea bilatzen dugu, tresna teoriko eta metodologikoak partekatuz baterako proiektu (pilotu) bat hasteko.

2. DINAMIKA:

10:30 Aurkezpena eta sarrera (José Luis de la Cuesta eta Justizia Zuzendaritzako arduraduna)

11:00 - 13:30 SIMULAZIO ARIKETA (Anna Vall)

13:30-15:00 LANEKO BAZKARIA

15:00-17:00 SIMULAZIO ARIKETA (Anna Vall)

17:00-18:00 SIMULAZIO ARIKETEI BURUZKO EZTABAIDA ETA LABURBILKETA (Anna Vall
eta hainbat bideratzailearen parte hartzea, konferentzia eta zirkuluetan izan dituzten esperientziei buruz)

18:30-19:30 ZERBITZU BAKOITZEAN PROIEKTU PILOTUAK EGITEKO BEHAR DIREN BALIABIDEEN ZERREDA EGITEA (ETA HORRETARAKO PRESTUTASUNA ETA KOSTUA ESTIMATZEA)

Esate baterako:

- a) proiektu pilotuen koordinatzaile bat;
- b) administrazio babes handiagoa, parte hartzaile guztien agendak egokitzeko;
- c) koordinazio hobe, proiektua partekatzeko eta zerbitzuak (gizartekoak, osasunekoak, espetxeetakoak...) inplikatzeko; hartara, komunitateko pertsonak zirkulu edo konferentzietarako prestatzea ez da izango soilik bideratzailearen eginkizuna.
- c) gogoeta sakonagoa egitea konfidentzialtasun printzipioari buruz;
- d) azalpen lana taldearen aurrean, latsa leheneratzailearen inguruan (Braithwaite 1989), edo beste eredu baten arabera, etab.;
- e) areto egoki bat (zirkuluetan pasatzen den objektuaren aukerei buruz ere pentsatu behar da);
- f) esperientzia biltzea, ikerketa-ekintza gakoan ebaluatzeko, Europako ereduari jarraiki (Weitekamp et al., 2015).

Prestatzaileak esperientzia katalanekin izandako bizipen propioaz hitz egin ahal izatea eta oztopoak nola saihestu edo murriztu diren azaltzea (hainbat eremutan, ez bakarrik zigor arloan) oso interesgarria izan daiteke.

19:30 AGURRA ETA AMAIERA